

**ETA
EZ**



7. AKTA

GOBERNU BATZORDEAren bilkura 2003ko ekainaren 9an egin.

NON: Pasaiako herriko Udaletxean

NOIZ: Bi mila eta hiruko ekainaren bederatzian.

BERTARATUAK:

Joseba Xabier Portugal Arteaga
Obdu Lorenzo de Dios eta
Ricardo del Pozo Gil de Albornoz

Bilkura buru:

Juan Carlos Alduntzin Juanena alkate j.

Gobernu Batzordearen bilkura egiteko elkartu dira goian izendatu ditugunak, Joseba Belaustegi Cuesta udal idazkariarekin batera, zehaztutako data eta tokian, aurretik bidali zaien bilera-deiari jarraiki. Angel Ouviaña Vidal zinegotziak ez du justifikatu etorri ez izana.

Bilkura buruak ikusi du batzordekide aski badagoela Gobernu Batzordea eratzeko eta bilkurari hasiera eman dio 18:00an, aztergaien zerrendari helduz.

OGASUNA

1.- 5/03 kontu fakturen zerrenda.

Gobernu Batzordeak, bilkurara agertu diren zinegotzi guztien adostasunez, honako kontuak eta fakturak onartzea erabaki du:

Zk.: 5/03

Zenbatekoa: EHUN ETA BERROGEITA HEMEZORTZI MILA ZAZPIEHUN ETA BOST EURO ETA HIRUROGEITA ZORTZI ZENTIMO (158.705,68) eurokoa.

GIZARTEKINTZA

2.- Gizarte-beharrizan Larrietarako Laguntza aldaketa.

Ikusirik Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoetan egindako modifikazioez 2003ko ekainaren 3ko Gizarte Zerbitzuen Arduradunak aurkeztutako proposamena, 1/03 proposamenari dagokiona, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

ERABAKI DU

LEHENGO.- Espedientean agertzen diren onuradunen 1/03 zka. daraman proposamenari dagozkion Laguntzak modifikatzea aipatzen diren arrazoiak direla eta, bertan agertzen diren kantitateak anulatuz.

BIGARREN.- Aipatu inporteak Gizarte Larrialdira itzultzea.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri Kontuhartzaitzaren sailari bidaltzea.

3.- Giza-Larrialdietrako laguntza ekonomikoak, udalaren agindupekoak. 3/03 proposamena.

Ikusirik 2003ko ekainaren 6ko Gizarte Zerbitzuen Arduradunaren proposamena eta Udalaren menpeko Gizarte Larrialdiko onuradunen zerrenda, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez erabaki du ONTZAT EMATEA espedientean agertzen diren onuradunen Laguntzak 21.725,73 euroko inportez. Hau guztia indarreango udal-aurrekontuko A-587/03 baimenduaren kargura.

KONTRATAZIOA

4.- “Pasai Antxoko Azoka birgatzeko” obraren 6. (azkena) ziurtagiria.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, Udal Aparejadoreak aurrez aldeko txostena emanik, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka. 6. (azkena)

Obra: “Pasai Antxoko Azoka berrabiltzea”.

Obra-zuzendariak: Joan Kruz Altuna, Eduardo Montoya eta Jaime Vergel jaunak.

ERAILAN, S.A. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HOGEITA HEMERETZI MILA ETA BEDERATZIEHUN ETA LAU EURO ETA LAUROGEITA HAMAIIKA ZENTIMO (39.904,91 euro).

2360/02 Baimenduaren kargura.

EUSKARA

5.- OTBri dirulaguntza

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez eta Euskara Batzorde Informatiboak 2003ko ekainaren 4an luzatutako diktameneko proposamenez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- OARSO TELEBISTARI bere egitasmoa garatzeko 5.409,10 euroko dirulaguntza ematea.

BIGARREN.- Akordio hau interesdunari jakinarazi eta honen aurkako errekurtsoen berri eman.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko 581/03 Baimenduaren kargura.

6. “Trintxerpe Galiziarrek Euskal Herrian” bideoari diru laguntza.

Euskara batzordeak 2003ko ekainaren 4ko data daraman irizpenean proposatutakoaren arabera, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez,

ERABAKI DUTE

LEHENENGOA. IKASJAIA, S M-ari 1.500€ rainoko diru laguntza ematea, “Trintxerpe Galiziarrek Euskal Herrian” dokumentala euskarara eta galegora bikoiztu eta itzultzeko egitasmoa aurrera eramateko.

BIGARRENA. Diru laguntza hau bi zatitan emango da:

- ✓ %50 erabakia hartzen den unean
- ✓ %50 lana aurkeztu eta kostua faktura bidez egiaztatzen denean

Edonola ere diru laguntzak ez du egitasmoaren kostua gaindituko.

HIRUGARRENA. Erabaki hau interesdunari jakinaraztea, honen aurka jar ditzakeen errekurtsoen berri emanez.

7. Hitzarmena, Abaraska Euskara Elkartearekin

Euskara batzordeak 2003ko ekainaren 4ko data daraman irizpenean proposatutakoaren arabera, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez,

ERABAKI DUTE

LEHENENGOA. Onartzea, Pasaiako Udalak eta Abaraska Euskara Elkartearen artean 2003. urterako programetarako lortutako lankidetzaren hitzarmena.

BIGARRENA. Onartzea, 19.600 euroko diru laguntza Abaraska Euskara Elkarteari ematea”10.481.455.10.01 euskararen aldeko jardueri dirulaguntzak” partidatik. Ondoren adierazten den modura ordainduko dira:

- ✓ 1. ordainketa, 14.700 eurokoa erabaki hau onartu ondoren.
- ✓ 2. ordainketa, 4.900 eurokoa 2003ko irailean ordainduko zaizkio.

HIRUGARRENA. Erabaki hau interesdunari jakinaraztea, honen aurka jar ditzakeen errekurtsoen berri emanez.

8.- Abaraska Euskara Elkarteari dirulaguntza.

Gobernu Batzardeak bertako zinegotzien aho batez eta Euskara Batzardeko Lehendakariaren 2003ko ekainaren 4ko proposamenez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- ABARASKAri, San Pedro eta Trintxerpeko euskara elkarteari, 2003. Urteko bere egitasmoa garatzeko 3.350 euroko dirulaguntza ematea. Hau guztia "10.481.455.10.01 euskararen aldeko jardueri dirulaguntza" partidatik eta indarreango udal aurrekontuko A-584/03 baimenduaren kargura.

BIGARREN.- Ordainketa ondorengo eran egingo da:

- Lehenengo ordainketa %75 = 2.512,5 euro erabakia hartu ondoren.
- Bigarren ordainketa %25 = 837,5 euro abenduan, balantzea eta likidazioa aurkeztu ondoren.

HIRUGARREN.- Akordio hau interesdunari jakinarazi eta honen aurkako errekurtsoen berri eman.

9.- Arnasa Euskara Elkarteari dirulaguntza.

Gobernu Batzardeak bertako zinegotzien aho batez eta Euskara Batzardeko Lehendakariaren 2003ko ekainaren 4ko proposamenez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- EUSKAL HAZIA ARNASari 2003. Urteko bere egitasmoa garatzeko 2.130 eurko dirulaguntza ematea. Hau guztia "10.481.455.10.01 euskararen aldeko jardueri dirulaguntza" partidatik eta indarreango udal aurrekontuko A-579/03 baimenduaren kargura.

BIGARREN.- Ordainketa ondorengo eran egingo da:

- Lehenengo ordainketa %75 = 1.598 euro erabakia hartu ondoren.
- Bigarren ordainketa %25 = 532 euro abenduan, balantzea eta likidazioa aurkeztu ondoren.

HIRUGARREN.- Akordio hau interesdunari jakinarazi eta honen aurkako errekurtsoen berri eman.

10.- Brankari dirulaguntza.

Gobernu Batzardeak bertako zinegotzien aho batez eta Euskara Batzardeko Lehendakariaren 2003ko ekainaren 4ko proposamenez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- Arnasa eta Abaraska euskara elkarteen babesean argitaratzen den BRANKA herri aldizkariari 2003 urteko bere egitasmoa garatzeko 6.010 euro dirulaguntza ematea. Hau guztia “10.481.455.10-01 euskararen aldeko jardueri dirulaguntza” partidatik eta indarreango udal aurrekontuko A-580/03 Baimenduaren kargura.

BIGARREN.- Ordainketa Brankaren kontura transferitu behar da (KUTXAKO 2101.00.61.55.00.10923522).

HIRUGARREN.- Akordio hau interesdunari jakinarazai eta honen aurkako errekurtsoen berri eman.

11.- HITZA eguneroko prentsari dirulaguntza.

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez eta Euskara Batzordeko Lehendakariaren 2003ko ekainaren 4ko proposamenez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- HITZA eguneroko prentsari bere 2003 urteko egitasmoa gauzatzeko 6.010 euroko dirulaguntza ematea. “10.481.455.10.01 euskararen aldeko jardueri dirulaguntza” partidatik eta indarreango udal aurrekontuko A-582/03 Baimenduaren kargura.

BIGARREN.- Akordio hau interesdunari jakinarazi eta honen aurkako errekurtsoen berri eman.

KULTURA

12.- Pasaia-Lezo Lizeoari dirulaguntza.

Kultura eta Hezkuntzako Zinegotzi-Delegatuak 2003ko maiatzaren 29an egindako proposamenez, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- PASAIA-LEZO LIZEOARI 55.716 euroko kantitatea abonatzea, aipatu Ikastetxeak et Pasaia Udalak 2001eko uztailaren 24an suskribatutako akordioan ezarritako kantitatearen lehenengo parteari dagokiona.

Hau guztia indarreango udal-arrekontuko 05-481-422-00-02 partidaren eta A-543/03 Baimenduaren kargura.

BIGARREN.- Akordio hau interesdunari jakinarazi eta honen aurkako errekurtsoen berri eman.

BESTEAK

13. Erreklamazioak, ondare-erantzukizunei dagozkienak.

A) Basilisa Berastegui Saigoz-en erreklamazioa.

Basilisa Berastegui Saigoz-ek erreklamazioa egin zuen 2002ko azaroaren 8an EUSKADI ETORBIDEA kalean izandako erorikoagatik.

Kontuan hartu beharreko legeria honakoa da:

Nahitaezko Desjabetze Legeko 121.12 artikulua, martxoaren 26ko 429/1993 E D-ko 1.3 art.-a, zeinaren bidez onartzen den Herri Administrazioen Ondare Erantzukizunari buruzko Prozedura Araudia eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 97 artikulua.

Udal aparejadoreak egindako txostenaren arabera bai lanak egin bitartean, egunero, bai lanaldiaren amaieran, arratsaldedo 6etan, AIU, 2, 15. partzela, 48215 Iurreta (Bizkaia) helbidea duen PROBISA, TECNOLOGIA Y CONSTRUCCION, S.A., enpresa kontratistari agindu zehatzak eman zitzaizkion lanak behar bezala seinaleztatu eta babes zitzan, istripuak ekiditearren.

Hori guztia kontuan hartuta eta gertakariak ez direnez ez egitasmoaren ezta administrazioako aginduen akatsengatik izan, Gobernu Batzordeak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez

ERABAKI DU

LEHENENGOA. Ezestea BASILISA BERASTEGUI SAIGOZ and.-ren ondare erreklamazioa.

BIGARRENA. Erreklamatzaileri jakinaraztea egitekotan enpresa kontratistari edo jurisdikzio zibilari egin beharko diola erreklamazioa.

B) M^a Dolores Taberna Choperena and.-ak egindako erreklamazioa.

M^a DOLORES TABERNA CHOPERENA and.-ak erreklamazioa egin zuen, 2002 ko maiatzaren 25ean Gelasio Aranburu kalean izandako erorikoarengatik.

Kontuan hartu beharreko legeria honakoa da:

Nahitaezko Desjabetze Legeko 121.12 artikulua, martxoaren 26ko 429/1993 E D-ko 1.3 art.-a, zeinaren bidez onartzen den Herri Administrazioen Ondare Erantzukizunari buruzko Prozedura Araudia eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 97 artikulua.

Udal aparejadoreak egindako txostenean adierazten da obren lekua –Molinao erreka ondoko espaloia-erorikoaren egunean babestuta zegoela egurrezko behin-behineko baranda batez, handik igarotzen ziren pertsonak balia zitezen, era horretara segurtasuna handituz. Aldi berean baranda honek errepidetik bereizteko balio zuen, hartara oinezkoak babestu egiten zituen ibilgailuetatik. Baranda hau Donostiako Catalina de Erauso kalea, 11. zk.-an helbidea duen Construcciones Donosti-k ipini zuen.

Hori guztia kontuan hartuta eta gertakariak ez direnez ez egitasmoaren ezta administrazioako aginduen akatsengatik izan, Gobernu Batzordeak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez

ERABAKI DU

LEHENENGOA. Ezestea MARIA DOLORES TABERNA CHOPERENA and--ren ondare erreklamazioa.

BIGARRENA. Erreklamatzaileri jakinarazi izatekotan enpresa kontratistari edo jurisdikzio zibilari egin beharko diola erreklamazioa.

C) Angela Vazquez Sánchez and-ak egindako erreklamazioa.

ANGELA VAZQUEZ SANCHEZ and-ak erreklamazioa aurkeztu zuen 2002ko abuztuaren 30ean izandako erorikoagatik, Ulia etorbidean, aterpetxearen parean dagoen oinezkoen pasabideko zulo batean hanka sartu baitzuen.

Aseguru-etxeak idatzi bat aurkeztu du eta bertanudalaren baimena eskatzen du auzibidetik kanpoko adiskidetasunezko konponketa negoziatzeko erreklamatzailerekin Gobernu Batzordeak bilkurara agertu diren zinegotzi guztien adostasunez

ERABAKI DU

LEHENENGOA. Ahalmena ematea aseguru-etxeari auzibidetik kanpoko adiskidetasunezko konponketa egiteko ANGELA VAZQUEZ SANCHEZ and-arekin.

BIGARRENA. 901,52 euro pagatzea, udalaren erantzukizun zibilaren aseguru polizan hitzartutako frankiziari dagokiona eta aseguru-etxeari ordaintzea aipatutako adostasuna izenpetu dutela egiaztatzen duenean.

HIRUGARRENA. Erabaki hau interesdunari jakinaraztea, honen aurka jar ditzakeen errekurtsoen berri emanez.

D) Josefa Izaguirre Esnaola and.-ak egindako erreklamazioa.

JOSEFA IZAGUIRRE ESNAOLA and.-ak erreklamazioa aurkeztu zuen 2002ko abuztuaren 15ean Pasaiko udalerriko Eskalantegi kaleko 15. zk.-ko espaloian izandako ererikoagatik, dioenez galtzada publikoko landereen egoera txarrarengatik.

Aseguru-etxeak idatzi bat aurkeztu du eta udalaren baimena eskatzen du auzibidetik kanpoko adiskidetasunezko konponketa negoziatzeko erreklamatzailarekin, Gobernu Batzordeak bilkurara agertu diren zinegotzi guztien adostasunez

ERABAKI DU

LEHENENGOA. Ahalmena ematea aseguru-etxeari auzibidetik kanpoko adiskidetasunezko konponketa egiteko JOSEFA IZAGUIRRE ESNAOLA and-arekin.

BIGARRENA. 901,52 euro pagatzea, udalaren erantzukizun zibilaren aseguru polizan hitzartutako frankiziari dagokiona eta aseguru-etxeari ordainduko zaizkio aipatutako adostasuna izenpetu dutela egiaztatzen duenean.

HIRUGARRENA. Erabaki hau interesdunari jakinaraztea, honen aurka jar ditzakeen errekurtsoen berri emanez.

- Gaizerrendatik at eta aurrez zinegotziek aho batez erabakirik gaizerrendan sartzea, hurrengo akordioak hartu dira.

14. Diru laguntza Trintxerpeko elizarentzat.

Aldez aurretik aurrekontuko diru-izendapena eginda, azken bilkuran kreditu aldaketa bidez egin zena, Gobernu Batzordeak, alkateak hala proposatuta, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez

ERABAKI DU

LEHENENGOA. Trintxerpeko Karmengo Ama parrokiari 9.000 euro ematea, diru laguntza gisa dorrean erlojua ipintzeagatik.

BIGARRENA. Erabaki hau interesdunei jakinaraztea, honen aurka jar ditzaketen errekurtsoen berri emanez.

15. Diru laguntza Tirri-Tarra-ri

Aldez aurretik aurrekontuko diru-izendapena eginda, azken bilkuran kreditu aldaketa bidez egin zena, Gobernu Batzordeak, alkateak hala proposatuta, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez

ERABAKI DU

**ETA
EZ**



LEHENENGOA. TIRRI-TARRA Fanfarreari 18.000 euroko diru laguntzaematea, aldez aurretik hitzarmen bat sinatzeko baldintzarekin. Hitzarmen honek arautuko ditu diru laguntza horri lotuko zaizkion eskubide eta betebeharrak.

BIGARRENA. Erabaki hau interesdunei jakinaraztea, honen aurka jar ditzaketen errekurtsoen berri emanez.

16. Diru laguntza Ilunbe Musika Eskolari

Aldez aurretik aurrekontuko diru-izendapena eginda, azken bilkuran kreditu aldaketa bidez egin zena, Gobernu Batzordeak, alkateak hala proposatuta, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez

ERABAKI DU

LEHENENGOA. Ilunbe Musika Eskolari 6.000 euroko diru laguntza ematea "El Acomodador" Opera egiteko.

BIGARRENA. Erabaki hau interesdunei jakinaraztea, honen aurka jar ditzaketen errekurtsoen berri emanez.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 19:00etan, batzarraldia amaitutzat eman da, honen eduki guztia akta honetan jasoz, hau Alkate jaunak eta nik, Idazkari bezala ziurtatuz, sinatu dugularik.